

MAITASUN KONSTELAZIOAK

MEMORIA



"Gure existentziei pisua kentzeko beharrezkoak dira halako lanak. Bazen garaia idazleren batek berriro buruko estalkia jantzi eta zenbait gauza esaten ausartzeko."

Gustav Thompson, Herald Tribune.

"Aurretik idatzia ez dagoenez idatzi beharra dago, eta pertsona honek bakarrik idatz lezake obra hau. Trikimailu eta tramankuluz betetako obra iradokitzailea, ezinbestekoa maitasunaren beste aldera igarotzeko."

Alice McPhee, Washington Post.

"Egileak bere ohiko estiloari heltzen badio, espero dut laster taula gainean ikusi ahal izatea artefaktu bizi hau. Umoretsua, sentikorra, hurbila. Behingoz itzultzea erabaki du antzerkigintzako free-lance honek, halakoak inoiz baino beharrezkoago ditugunean".

Augusto Gomes, Berria.

"Bizipoza eskura izateko klik horren bila dihardu autore honek, Milo Manararen Klik harekin zerikusirik ez duela dio, baina egia izango ote da? Irakurtzeko irrikitan nago."

Maria Pilar Escribano, El País.

intro:

’ ’ ’ ’

who Proiektu hau aurkezten duen pertsonak XXI. mendean geroz eta presenteago ditugun maitatzeko modu berriei buruz mintzatzeko beharra dauka, Maitasun Hedatuaren kontzeptua aurkeztuz, bere esperientzia pertsonalen ondorioz.

what MAITASUN KONSTELAZIOAK maitasunari buruzko ez-fikziozko antzerki obra da, ikusleei bizipen bat eskaintzen diena eta gainera amaierarik ez daukana. Ez dauka, ez.

where Afektuen iraultza hau ohean hasten da, eta hortik kalera.

when Oraintxe bertan, gertatzen ari da, norberaren erabakia da.

why Maitasun erromantikoa barruraino sartuta dugun gizarte honetan, horren ajeak gainditu eta beste modu batzuetan maitatzea posible dela behin eta berriro planteatu beharra dagoelako.

MAITASUN KONSTELAZIOAK

SINOPSIA



HEMEN EZIN DA MAITATU.

Hori da hasiera. Horixe da gure statu quoa.

Errotulu hauek azalean tatuatuta daramatzagu:

MAITATZEA DEBEKATUTA

Debekatuta dago hemen maitatzea

Kalean maitatzea debekatuta

Lanean maitatzea debekatuta

Eskolan maitatzea debekatuta

Dendan, tabernan, liburutegian maitatzea debekatuta

Politikan, ekonomian, kulturaren, kirolan maitatzea debekatuta

Debekatuta dago gorputzetan maitatzea,

Debekatuta dago larruazalean, likidoetan, haragi bigunean, zuloetan maitatzea

Debekatuta dago jendaurrean maitatzea

Debekatuta dago jolastea.

Baina orduan

Norbait ezagutu eta maitemindu egiten zara.

Une horretan aro berri bat hasten da zure bizimoduan.

Hori horrela da, askotan gertatzen da. Ez hain askotan agian, baina gertatu ohi da.

Besteak zu ezagutu eta bera ere maitemindu egin da.

Historia polit baten hasiera da.

Txinpartak sortzen dituzue eta mundu berriak ikusten dituzue elkarren begietatik.

Bestea ordea hirugarren batekin dago. Ezkonduta adibidez. Eta seme alabekin. Eta

ondo dago horrela. Ez da hori aldatuko. Oraingoz behintzat ez.

Hau traba bezala bizi daiteke. Traba gaindiezin bezala.

Edo ez.

Gardentasuna. Kartak mahai gainean.

Argi berria sartzen uzten duzue. Gatazka ekiditen da.

Asteak pasatzen dira. Eta hilabeteak. Eta urteak.

Armairu barrua ekiditen ere ikasten da.

Naturaltasunez.

Jende gehiago agertzen da.

Jende berria. Jende polita.

Lan asko egin beharra dago hau sostengatzeko.

Maitasun konstelazio bat.

Milaka eta milaka muxu. Polimaitasuna. Polifamilia. Maitasun hedatua.

Emozio asko. Asko, dantzan.

Ez da batere ohikoa. Ez zen ohikoa XX. mendean. Baina gertatzen ari da.

Eta bidea ere izan daiteke, bestea bezain *naturala*, edo are gehiago, gure behar eta grinei adituz egiten badugu, elkar zaintzen. Zergatik ez?

Maitatzeko eredu nagusia krisian jartzerakoan egiteko modu berriak agertzeko aukera sortzen da, baina mina, zalantzak, beldurrak... agertzeko tenorea ere bada.

Pertsona bakoitza maitasunaz jabetzea, ahalduntzea da proposatzen dena, ohi bezala maitasun sentimenduak beste pertsona batengan enfokatu beharrean.

Zaintza eta plazerrak erdigunean jartzea, norberarengandik hasita eta eskuzabal jokatzuz.

Maitatzeko eredu bakarra oso barneratua dugu, traba zaigu eredu bakar hori, kanpo eta barnetik baldintzatzen gaituena, asmatzeke daukagun modu honetarako.

Eta kontakizun berriak behar ditugu. Queer, trans, homo, poli, alter... nahi duguna.

Gure neurriko harremanak asmatu behar dira.

Bizitzeko modua izan daiteke maitasuna, eta beste gauza askorekin nahasten dugu.

Maitasuna, ez den guzti horrekin definitzen saia gaitetzke:

Maitasuna ez da bikotea.

Maitasuna ez da familia.

Maitasuna ez da etxea.

Maitasuna ez da kontrola.

Maitasuna ez da alkondara bat.

Maitasuna ez da beste batengan bermatzea gure gabezia guztiak.

Maitasuna ez da liburu bat.

Maitasuna ez da obsesioa.

Maitasuna ez da app bat.

Maitasuna ez da tornillo bat.

Ez da triku bat, ezta arraintxu bat ere.

Fikus bat ere ez.

Maitasuna ez da estereotipo bat.

Ez da egiteko modu bakar bat.

Maitasuna infinitoa da.

Edo are hobeto horrela: infinitoa, maitasuna da.

Itsasoa.

Gau izartsu bat beste gorputz baten goxotasunean.

Arnasa hartzeko modu bat da azken finean, bizitza hartu eta bizitzan egoteko modua.

Edonorekin. Naturarekin, Gaiarekin, zentzu zabalean.

Izar azpian, izara azpian ...edo izar izararen azpian.

Ez pertsona bakar batekin.

Zu zeu zara maitasuna.

Maitasuna ni naiz.

Beste inork jasan ezin zaitzakeen egun horietan zure ondoan egoteko pila bereziak dituen, hori, zu zeu baitzara.

Ni neu naiz plazerra

Ni neu naiz maitasuna

Ni neu naiz xamurtasuna

Maitasuna baraja bat balitz, honako hitzak sar genitzake barajatzan hasi aurretik: konexioa, azalak, haztea, gozamina, plazerrak, ilusioak, bizipoza, distira, aditzea, zaintzea, ematea, konfidantza, konpainia, epeltasuna, sua, etxea, sutondoa, punpuila... eta baita errutinak, familia, ohiturak, erlijioa, esamesak, artaldea, norbera, besteak, dardara, malkoak, arnasa, desioa, konplizitatea, mina, bihotza, itxita, irekia, konplexuak, xamurtasuna, sexua, konpromisoa, dialektoa, planak, pasioa, proiektzioak, iragana, haurtzaroak... eta abar eta abar... bizitzari dagozkion prozesu guztiak sar litezke egia esan halako baraja batean, tarot batean agertzen diren guztiak adibidez. Baina hitzekin deskribatu daitekeenaz beste badu alde ezezagun eta misteriotsu bat, definezina, kontrolaezina, eta hori da sorgintzen gaituena ziurrenik.

Artea da maitatzea. Edozein artek bezala beraz, ezagutza eta ahalegina eskatzen ditu, kontzentrazioa, pazientzia, ardura... Maitatzea ez da berez gertatzen uzteko moduko gauza: maitatzeko gaitasuna landu beharrekoa da. Ahalegin pertsonal eta kolektiboa da.

Eguneroko maitasun erabakiez ari gara, ari da, MAITASUN KONSTELAZIOAK.

Giza harremanak, antzerkirik miresgarriena.

INTERESA- EDUKIA

Gaur dugun harreman sexu-afektiboen aniztasuna ez da gizakien historian inoiz ikusi izan. Maitasun kontuetan mentalitate aldaketa batean murgilduta gaude hemen eta orain. XXI. mendeko Euskal Herrian ez da XX.ean bezala maitatzen, eredutik kanpoko beste modu batzuk daudelako, edo beti egon diren horiek nabarmenago direlako, eta horien gaineko errelatu komunak sortzen ari direlako. Errelatu berri hauek partekatzeko unea da, hemen eta orain, maitasun kontuetan lasai hazi ahal izateko.

Maitasun Hedatuan lasai hazi ahal izateko.

Maitasun eredu hetero eta monogamoaren kolokaren unean, ze harreman mota izan nahi dugun, nola maitatu nahi dugun erabakitzen hasteko momentua da.

MAITASUN HEDATUA maitasunari norabide ezberdinetan hazten uztea da, ereduak alboratu eta harremanei gertatzen uztea.

Harreman afektiboak? ...Lagunak? ...Sexua?

Maitasuna arian hazten da.

MAITHAZTEN gara, geure buruari baimena emanez gero.

Bikote eredu monogamo erromantikoak zenbait oinarri barnerarazi dizkigu, hala nola:

Esklusibitate sexu-afektiboa / Gure bikoteak osatu egiten gaitu, osoak ez baikina bezala

/ Leialtasuna / Gure harremanen hierarkia: bikotea lehenetsi beti, lagunak bigarren

planoan utziz / Lotura heterosexual erreproduktorea, elkarrekin bizi zezakeen, ezkontzea /

Maitasuna indartsua eta betiko da / Zeloak / Maitemintzea eta maitatzea baliokidetzat

hartzea / Bikotea eredu natural eta unibertsaltzat hartzea... eta abar. Horietako batzuk oso mingarriak gerta daitezkeenak, eta orohar hemen (gutxienez) ulertu eta (nola edo hala) desikasi nahi ditugunak.

Monogamia ez baita bakarrik eskusibitate sexu-afektiboa, baizik sistema bat, eta patriarkatua kuestionatu beharra dago, bikotea unibertsoaren erdigune bezala jartzen baitu, genero klitxe guztiak ezarriz gainera.

Maitasunaz ahalduntzeaz ari gara hemen, azken finean. Eta ohituta gaude norberari dagokion gai hau, beste asko bezala (hala nola osasuna edo hezkuntza) beste norbait edo zerbaiten esku uzten. Gure esku dagoen, eta horren gaineko lanketarik ezin egin ahal izango bagenu bezala... Pertsonaren gabezia oinarritzkoa betetzeko bilatzen dugu bestea, bikotea, osatuko gaituen hori... Eta dependentzia horretan sortzen dira gero harreman toxiko asko ere, eta genero biolentzia horren azken adierazpen dugu.

Horren aldean, polimaitasunak konpromisoaz maitatzea proposatzen du. Ereduaren dekonstrukzio hori feminismoaren ekarritik egiten dugun heinean zainketa balioen arabera egingo dugu.

Zaintza eta Plazerrak bizitzaren erdigunean jarri nahi ditugu.

Polimaitasuna edo harreman irekiak edo maitasun hedatua praktikan jartzea dexente konplikatua izan ohi zaigu ordea. Ez gaude ohituta. Gehienetan ez du hasieratik ondo funtzionatzen, gure biografia kultura monogamo heteropatriarkalean garatu delako.

Asko landu beharra dago, kontu asko zaindu behar dira, elkar laguntza handia eskatzen du, konplizitatea eta argitasuna.

Horrekin batera genero rolen arteko desberdintasun asko aldatu beharrekoak dira, nagusi diren jarrera askotan: zaintzei dagokien gizon eta emakumezkoen arteko asimetria nabarmena, gizonezkoen harreman aniztasuna eta emakumezkoena begi ezberdinez ikustea, eta abar.

Gainera Maitasun Erromantikoa gustatu egiten zaigula onartu beharra dugu, eta hura baztertzeko erresistentzia handia izango dugu: hain filme onak ikusi ditugu! Eta ez zaigu erraza onartzea hain zoriontsu egiten gaituen harreman hori bihar amaitu daitezkeela, edo pertsona horrentzako beste pertsona berezi batzuk egon daitezkeela ere; ez dirudi hain magikoa guk landu beharreko maitasuna zerutik etorrita bezala txunditzen gaituen horren aldamenean... Edo onartzea ere gauzak ondo ez badoaz errua ez dela bestearena norberak konpondu beharrekoa baizik...

Aldaketa erradikala dakar guzti honek harremanetan sartzeko orduan, harreman berriei ateak irekiaz batera horrek bizitzaren hainbat aspektutan eragin baitezake.

Izan ere, harreman irekiak beti egon dira, eta (batez ere gizonezkoen) poligamia ere bai... Orain dagoen aldaketa, iraultzaile dena benetan, honetaz hitzegitea da, planteatu egiten dela, modu irekian mintzatu gaitezkeela alde eta kontra ager daitezkeen elementuez, zeloetaz, ager daitezkeen sentimendu ez hain atseginei buruz hitzegitea, eta norbait sufritzen ari baldin bada harreman mota aldatzeko prest egotea... Hori da aldaketa: zainketak erdigunean jartzea. Eta horrekin batera informazio asko eskura

izatea, antzera pentsatzen duen jendearekin elkartzeko aukera... Errelatu hauek sortzea eta partekatzea.

Eginean, akordioak, paktuak, arauak eta mugak asmatu behar dira pertsona bakoitzaren unean uneko beharrizanen arabera... eta horretarako beharrizan hauek argi izan behar ditu norberak.

GALDERAK

Eredua kuestionatzeak hamaika galdera ekartzen ditu mahai gainera, eta horiek izango dira MAITASUN KONSTELAZIOAK idazteko motorra.

Oso galdera inportanteak baitira:

-Zer behar dut? Zer behar duzu?

-Nola zaindu behar dut nire burua?

-Nola nahi dut ingurukoek ni zaintzea?

-Zer gustatzen zait?

-Zer desio dut?

-Zerk egiten nau benetan zoriontsu?

-Zerk animatzen nau?

-Zein proiektu dauzkat bizitzan?

-Koherente naiz nire buruarekin?

-Zer da benetan maitatzea?

-Nola berdefinitu behar ditugu afektuak jende gehiago sar dadin, bikote harremana baztertzaila izan ez dadin?

-Ze baldintza ditugu ezinbestean bete beharrekoak gehiago eta hobeto maitatu ahal izateko?

-Zer ari gara harreman bezala ulertzen?

-Zer ari gara sexu bezala ulertzen?

-Zer da gure arteko harremana irekitzea? Sexuaz ari gara bakarrik? Afektiboki ere?

-Inplikaturata dauden pertsonekin zer partekatu behar dugu eta zer ez?

-Prest gaude gure buruarekin (eta gorputzarekin) zintzoki jokatzeko? Eta besteekin?

-Gure neurriko traje hori josteko gai gara? ...Eta unean-unean birjosteko baldintza berrien arabera?

-Besteen trajeak ez kopiatzea posible al da?

-Zein dira maitasuna eta adiskidetasunaren arteko mugak?

-Lagunekin oheratu gaitezke?

-Sexuak zergatik konplikatzen ote du dana?

-Sexurik gabeko harreman afektiboak izan ditzakegu?

-Maitasunaren parte bat ezabatu beharra ote dut lasaiago maitatzeko?

-Nola egin kontu guzti hauekin ez autoengainatzeko?

-Askatasunak segurtasuna galarazten digu? ...Eta alderantziz?

-Indibidualismoaren beste tranpa batean erortzeko arriskuan gaude?

- Beste kontsumismo mota bat bilaka daiteke polimaitasuna?
 - Bakardadeari aurre egiteko gure artean binkulatzeko modu berriak asmatzeko gai ote gara?
 - Nola gizarteratu polimaitasun harremanak?
 - Mundua bizitzeko leku hobea izan dadin laguntzen ari al du honek?
 - Posible da polimaitasunaren barruan ere harreman monogamo bat izatea?
 - Posible da pertsona batekin baino gehiago batera maitemintzea?
 - Posible da polimaitasun erromantikoa ere?
 - Nolako paktu eta arauak asmatu ditzakegu gure lagun-maitaleekin?
 - Non daude zure gogoak? ...eta zure mugak?
 - Nola egin beste pertsonak ez manipulatzeko ezadostasunak daudenean?
 - Nolako konpromiso motak jar daitezke?
 - Nekagarria al da hau guztia planteatzea? Merezki al du?
 - Nor bait minduta gertatzen ari da?
 - Nola zainduko dugu elkar? ...eta berriro: Zer behar dugu?
- ...eta beste hamaika galdera indartsu...

IZAERA - FORMA

EZ-FIKZIOZKO ANTZERKIA

Maitasun Konstelazioetara datorren jende multzoa bizipen batetara dator ikuskizun batetara baino. Esan daiteke ez-fikziozko antzerki pieza bat dela.

Hemen.

Pentsaera poetikoa pentsaera matxinatua da.

Ezagutzen eta kontrolatzen dugun errealitatearen kontra.

Liluraren alde.

Plazerren alde.

Gure alde.

Dena dardarka jarritz.

Kultura zabalduz.

Bide berriak irekiz.

Orain.

Desioak begirada argitzen du.

Poesiak argitzen dituen lurraldeetan ekintzak agertzen dira.

Pertsonen gorputzek argitzen dituzten ekintzatan idazten dira testuak.

Eremu berriak argitzen dituzten hitzak eta esamoldeak asmatzen dira.

Gimnasia intelektual askatzailea eta gorputz jarduera ttiki esanguratsuak.

Pentsamoldeari argi berriak eskaini... eta gorputzmoldeari kanale berriak.

Maitasunari buruzko historia hau kontatzeko forma azken muturreraino eramango dut, ikustera datorrenari bizipen nahi bat eskaini baitiot, ez etxera esku hutsik joan araziko dion ikuskizun bat. Batzuetan irudituko du Dantza antzerkia, edo Performancea, edo Poesia errezitaldia, edo Kabareta, edo Rol Jokoa, edo Lagunen bilkura bat dela... Hori dena izango baita ere.

- Ahalmen sortzaile zintzoa dago proiektu honen atzean.

- Harritzeko eta liluratzeko gaitasuna duen antzerkia interesatzen zait, ikusle izan eta gero jakintsuago eta ahaltuago sentiarazten zaituena.

- Pentsamenduak harrotzen dituen umore mota horren bilaketa funtsezko osagaia da nere sukaldean.

- Giza harreman xamurren aldera igaro ahal izateko egia ttikien mapa malgua idatziko dut.

- Izaera politikoa izan nahi du obra honek. Ez dakit zer aterako den. Arrisku hori egon behar da. Ezin dut planifikatu.

- Euskera bera helburu dut ere euskaraz idaztea hautatzerakoan. Lengoiak berak eta konbentzionalismoek adierazpenari jartzen dizkioten erresistentziak gainditu beharreko lan ditut beti. Hizkuntza klitxez beteta dagoen artean, hitz gehiegi dago euskal hiztegian oraindik elkar ezagutzen ez dutenak, inoiz elkarren alboan izan ez direnak. Esamolde freskoak bilatzea da egitasmo honen asmo handietako bat. Solas-jolasa dut maite.

- Ekintza Antzerkia, Antzerki Zuzena, publikoa mugiarazten duena gustatzen zait.

Gertakizunak aldi berean gertatzen dira antzerkian, aktore guztiak lanean ari dira uneoro, askotan plano desberdinetan. Unean uneko harreman horiek eraikitzen dira haien eta ikusleen artean. Planteatuko diren ekintzatako batzuk kalean ere egin daitezke, iragarri gabe, egun arrunt bat baliatuz, eta ea zer gertatzen den...

-Pertsonen elkartzeko bat da antzerkia, ikuskizun baino lehen, xamurtasun topagune hemenean...

...

Eta orain LAGUN-MAITALE batek esango luke:

Orain hilko banintz

maitatu ez dudan guztiaren damu izango nuke.

Baina ez naiz hilko.

Baina orain hilko banintz

eman ez dudan laztan, muxu, besarkada bakoitzaren pena izango nuke.

Baina ez naiz hilko.

Oraintxe bertan hilko banintz

plazerretan hil nahiko nuke

eta hiltzen ez banaiz ere

plazerretan bizi nahi dut beti.

Plazerretan berpiztu nahi dut.

Ez dut hau inoiz ahaztu nahi:

Plazerretan berpiztu nahi dut.

MAITASUN KONSTELAZIOAK

TRATAMENDU DRAMATURGIKOAK



HASIERAN debekatuta dago maitatzea. Pertsonak, kalean bezala, ez dute elkar ikutzen ez badira oso oso lagun minak, eta batzutan ezta kasu horretan ere. Maitaleek izkutatu beharra dute, hemen debekatuta dagoelako maitatzea.

HASIERA POSIBLE BAT:

Jendea sartzera koan erdian armairu bat dago eta eserlekuak ez dira lerrotan antolatuta egongo, ezta zirkulu itxi batean ere. Jendeak elkar ikusten du eta talde sentitzen da, giroak segurtasuna ematen dio.

Audio bat jarrita dago. Musika da baina tarteka elkarrizketa zatiak ere entzuten dira. Bi txortaldi arteko elkarrizketak adibidez. Intziri edo arnasaldiak ere entzun daitezke.

Uneren batean aurkezle batek esan ditzake obrari buruzko irizpide batzuk... edo

MAITATZEA DEBEKATUTA atariko testu hori.

Armairua mugitu egiten da. Gero eta argiago dago barruan norbait dagoela.

LAGUN-MAITALE BAT ateratzen da barrutik, berotuta, eta komunera doa. Komunetik bueltan zerbait kontatzen digu jende artean eserita. Armairuak mugitzen jarraitzen du. Beste LAGUN-MAITALE BAT atera eta lehena barrura sartzen da. Bigarren honek beste zerbait kontatzen digu. Hirugarren LAGUN-MAITALE BAT ateratzen da. Eta laugarren bat ere agian. Ez da ohikoa armairu barrukoa. Horregatik gertatzen da armairu barruan, izkutuan alegia, jendearen begiratu moraletik gordeka.

ARMAIRUA hor geratzen da denbora guztian, espazio eta harreman mota bat definitzen, bide batez bere presentziak definitzen duen beste espazioa kanpoaldea da, jendartea alegia, ikusleekin batera gertatzen dena. Piezan zehar ikusleak ere armairu barrura sartzera gonbidatu daitezke... eta armairutik kanpo ere oso gauza interesgarriak gertatuko zaizkie, haien xamurtasunarekin harremanetan jarriko dituenak.

PERTSONAIK/PERTSONAK/LAGUN-MAITALEAK:

&&& LAGUN-MAITALE BATEk maitemintzeko gaitasun berezia duten pertsonak

bilatzen ditu, elkarrekin zerbait montatzeko. Esan dezake, adibidez:

Eta babestu eta gorde beharrean, maitia, kalera ateratzen badugu?

Gizarte honek aspertuta nahi gaitu

*Maitatzen dudanean, zirrara honetan bizi naizenean, gezur guztia argi ikusten dut
aspertuta bizi direnak ikusten ditut*

bizimodu grisak dituztenak, sisteman integratuta daudenak

entretanimendu programatua kontsumitzen dutenak

arazorik sortarazten ez dutenak

hiri aspertuak

ametsik gabeko pertsonak, bizimodu gogorretan murgilduta zertarako eta fakturak ordaintzeko

Maitaleak hori dena argi eta garbi ikusten du, begirada garbia duelako, zirraratik begiratuta GEZUR GUZTI HAU argi ikusten delako,

eta horregatik bihurtzen da zerbait lotsagarria, debekatua, maitatzea

BELDURRA digutelako maitaleei, eta horregatik behartzen gaituzte izkutuan maitatzera

Maitasunak mundua eraldatzen duelako, gehiago ez irenstera garamatza

SUBERTSIBOA DA.

Tradizio eta ohiturak, Estatua, zergak... Maitaleak ez du obeditzen! Argi ikusten duelako garrantzitsua zer den, munduaren edertasuna eta esanahia ulertzen du, eta normalean irensten dugun guztiaren zaborra ikusten du. Rutinak, bizimodu monotonoa, beharrianak, eguneroko obediencia guztiak... Denak zentzurik ez duela ikusten du argi. Hedatu dezagun begirada hori!

Sortu ditzagun maitemintzeko lekuak.

Hankaz gora jarriko dugu kapitalismo heteropatriarkala! Pikutara bidaliko dugu!

Prestatu dezagun mobida potolo bat, maitia, egin dezagun mundu mailako deialdi handi bat, maitasuna muinean izango duen iraultza handia egiteko!

&&& BESTE LAGUN-MAITALE BATen utopia gaur hemen elkartu garenok xamurtasun

hartuemanak edukitzea da. Halako gogoetak egiten ditu:

Artearen funtzioetako bat gizartearen abangoardian jartzea da.

Pertsonen ongizatean eragiten duten proposamen artistikoak egitea funtsezkoa da.

Burmuin eta gorputzak tarte batez mantsoagotzeko lekuan gaude.

Bizitzeko, hau da, Maitatzeko espazioak diseinatzeko proiektuaren barruan gaude.

Gure gizarte hain europar honetan onartuta ditugu elkarrekiko errespetua eta adeitasuna. Itxura batean bizikidetzak baketsu samarrean bizi gara.

Baina harrigarria da ze kontaktu fisiko gutxi daukagun pertsonen artean, nolako zailtasunak ditugun afektuak adierazteko...

Gorputz propioarekin daukagun harremana oso funtzionala izaten da, gutxitan plazerrei loturikoa.

Horregatik hemen xamurtasunaz jabetzeko aukera eskaini nahi dizuegu. Espazio eraldatzailea da hau. Mozorroak kendu eta garen izaki bigun eta xamurrak agertzea nahi dugu denok hemen.

Adeitasunetik haratago, eta sexualitatera ailegatu baino askoz lehenago...

badagoelako

tarte horretan

habitatu daitekeen

lurralde zabal bat...

Norberaren gorputza plazererako onartu eta zabaltzeko gonbita da hau. Xamurtasuna pertsonen komunikazio potentzialik garrantzitsuena da. Xamurtasunik gabe ez dago elkartzeko aukerarik, xamurtasunik gabe botere harremanak ezartzen dira.

XAMURTASUNA BIZI-KALITATEAREN KODEA DA.

&&& BESTE LAGUN-MAITALE BATEk maiteminduaren energia hori bere

gorputzarengan nola maneia ote dezakeen bilatzen du. Abestu dezake halako zerbait:

Konstante bital alteratuak

Sukar ertaina, tenperatura handiko pikoekin

Txotxolito irribarre etengabea

Begininien dilatazio gehiegizkoa

Kontzentrazio arazoak

Barne drogen gaindosia

Lanerako gaitasun eskasa

Otorduen desorden argia

Jarduera intelektualetarako gabezia larriak...

Zenbat irauten du maitasun sublimazioak?

20 segundu, 15 minutu, 10 ordu, 5 egun, hilabete, 7 urte...

Liluratuta guztiz, mozkorraldi etengabea

Intentsitate altua, burua galtzea

Ezin hobeto egon

Nola izena jarri honi: nirbana, extasi, osotasun...

Bizitzaren zentzua antzeman dut

Ez dut nahi hau amaitzerik

Bizipoz erraldoia inoiz ez bezala

Ta nere herrian lekurik ez.

Energia guztiaren jabe

Arnasketa naiz

Mugimendua naiz

Askatzen naiz

Hiltzera noa

Baina ez orain

Zenbat irauten du maitasun sublimazioak?

20 segundu, 15 minutu, 10 ordu, 5 egun, hilabete, 7 urte...

Zuk nahi duzun guztia

Zuk nahi duzun guztia irauten du

&&& BESTE LAGUN-MAITALE BATi maitemintze aroaren tsunamia pasatu denean

konfi-dantza horretan elkarrekin eraiki ahal den guzti hori gustatzen zaio.

Gure historia hau oraintxe hasten da

Politena ikusteke dugu

Hil eta berpiztu

Hil eta berpiztu. Hil

eta berpiztu.

Beldur guztiak disolbatu ditzagun garen itsaso honetan

Eta abia gaitezen libre

Zurekin gustorago baina zu gabe ere banabil

edo zu gabe ondo nabil eta zurekin gustorago.

Ez gara min hartzeko jaiok

Fedea dugu beraz.

Eskutik heltzen zaitut gure hatzamarrak gurutzatuz,

zure energia sentitzen dut eskutik eskura pasatzen.

Guzti hau telepatiaz esaten dizut orain

eta egunen batean ahoz.

Gure ezpainak elkartuko ditugu orduan, lehen aldia bailitzan

Izan ere, lehen aldia da muxu hau hartzen duguna

eta lehen aldiko dardar hori dauka, zirrara hori.

Maitatzeko jaiok gara eta min ematen duen hori ez da maitasuna.

Naizen hau nauzu

oraineko, fresko, goxo,

miazkatu nazazu politki,

politki.

Naizen guztiarekin maite zaitut

baita hain gustoko ez duzun horrekin ere bai.

Nik ere zugar hain gustoko ez dudan horrekin maite zaitut, zaren guztiarekin.

Tragediarik gabeko harremana nahi dut gure artean

minik eta hotzik gabekoa, erraza.

Maita gaitezen eredurik gabe, gure gogoen arabera

elkar maitatu eta ya.

LAGUN-MAITALEEK ez dute hala ere aipatu helburu horiei lotuta egon beharrik obrak iraun denbora guztian. Interes desberdinak dituzten pertsonak dira, ez pertsonaia aldebakarrak.

Kalteberatasunaren aldarria egin eta maitasuna den betiko gai honen molde berriak ezagutu nahi dituzte denek ere. Eta etorri den jendearekin batera harremanak ulertzeko modu berriak proposatu.

Maitasunerako hainbeste modu daude!

BUKAERAN xamurtasunerako giro aproposago bat lortuko da, gauza asko aldatu dira eta elkarrekin gauden gela honetan gauza asko aldatu dira. Beste giro bat dago.

Ez da obra hau antzerki gehienak ohi bezala amaitzen, hau da, errealitatera bere horretan gakartzan haustura batekin (argiak pizten dira, obra amaitu da, itzuli zaitez zure bizitzara zegoen bezala, amaitu da entretenimendu hau). Jarraikortasun bat bilatzen da hemen. Gonbite bat dago bukaeran proposatzen den xamurtasun giro horretan geratu eta murgiltzeko.

EZ DAGO BUKAERARIK.

EZ DA FIKZIOA, BIZITZA DA.

MATERIALEN ANTOLAKETARI BURUZ:

Susmoa dut badela antzerki-errepresentazio eredu bat agortzen ari dena. MAITASUN KONSTELAZIOAK ez dut ikusten dramaturgia klasikoaren eskemaren arabera.

Dramaturgia konposaketarako erabiltzen diren material sentikor heterogeneo guztien arteko ehundura edo artikulazioa modu askotan egin daitekeenez, ez dut testu hauekin egingo den erabilpena mugatzeko ahaleginik egingo.

Eskenaratzeko gogo eta proposamen bat badago testu hauen atzean, bai, baina halaber testu-bilduma-asmoa dauka, gaiari buruzko ñabardura guztietan (askotan, esan nahi da) sartzeko asmoa baitut, eta sortuko den testu pila ez da izango antzerki saio baten sartzeko moduko neurria.

Ez da izango testu hauetan obra itxi baten hasierarik, ekintzaz-ekintzako-garapen markaturik, ezta bukaera definiturik, hau ez da izango lerrobakarreko testua. Horren trukean, gaiaren inguruko material sorkuntza ugaria eta anitza da proposatzen dudana. Obra Bat Eta Aldi Berean Hamaika.

Testu aniztasun eta askatasun horrek dakarrena zera da: obra taularatzen duen bakoitzak obra guztiz desberdina egingo duela, muntatzen duen bakoitzak testuen artean hautatu eta horiek antolatu eta moldatu beharko baititu. Istorioa osatzea, beraz, lantaldearen eta ikuslearen esku utziko dut, eskainiko dizkiedan hauez gain haien esku dauden material sentikor eta abstraktu anitzekin batera ehundu ditzaten. Antzerki Biziaren alde egiteko nere modua da. Material hauen eraikuntza dramaturgiko posible batzuk azalduko ditut hala ere.

TENTSIOARI BURUZ:

Testuari aurre egiterakoan nere buruari galdetzen diot ea non den ekintza

testuarekiko, non testua eskenarekiko. Zertarako erabil litezkeen hitz horiek.

Ekintzaren alde ala kontra egingo ote duten. Aktoreen ahotan ala idatziz esango diren mezuak.

Eskena bakoitzean aldi berean ala jarraian ematen diren elementu ezberdinek sortutako tentsiotik etorriko da guztiaren zentzua.

Erritmoa bereziki zainduko dut testugintza lan honetan. Erritmoaren gaineko lana egingo dut. Esaldi oso laburrak izango dira batzutan, oso luzeak bestetan... Antzerki-testugintza ibilbidean batzuetan *metrailetaren* erritmoan idatzi izan dut, ustez publikoaren arreta erritmoak horixe merezi duelako. Beste erritmo ezberdin asko ere agertuko dira hemen.

Testu batzuk Osso Delikatuak dira.

Gupidagabeak beste batzuk.

GIROARI BURUZ:

Giroa bereziki hautatuko da eskena bakoitzerako. Beste batzuetan testuak idaztera mugatu naiz akotaziorik ia batere idatzi gabe, nahita, zuzendariari askatasun handiagoa emateko edo. Antzez-sortzaile naizen aldetik eskenaren giroa baldintzatuko duten elementuak bilatuko ditut, testuaren lagun izan litezkeenak. Gainera testua ez da beti lehendabiziko ailegatuko eskenaren asmatzera: lehenago izan liteke aktoreen ekintza, audioa, objektu bat ala beste zerbait.

MAITASUN KONSTELAZIOAK lan hurbila izango da. Pertsonaiak barik aktoreak izango dira eskenan daudenak, pertsonak, eta publikoari mintzatuko zaizkio zuzenean gehienetan, zuzenean baina albotik, batzutan xuxurlatua.

IKUSLEEN LEKUA:

Publikoaren papera ez da ohikoa izango mugiaraziko baitugu, xamurtasunez eta kausa onaren alde.

Zenbait jarduera proposatuko zaizkie, elkarrekin gauden pertsona taldea garen aldetik, hala nola, eszena baterako binaka edo hiru besarkatuta jartzea, janari edo edabe magiko bat eskainiko zaie "hesi guztiak baztertu eta xamurtasunean lasaiki sartu ahal izateko" balio duena, txartel bat hartu eta hor jartzen duena egin beharko du bakoitzak, albokoari eskua eman... halako gauzak.